

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuak odola ematera animatu nahi du jendea, udari eta Sanferminei begira erreserbak igotzeko

Transfusioen beharra areagotzea aurreikusten da eta, beraz, beharrezkoa da stocka handitzea

Miércoles, 01 de junio de 2011

Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuak dei bat egin die gaur herritarrei, udarako eta San Fermin jaietarako erreserbak igotzeko odola eman dezaten. Izan ere, garai horretan transfusioen beharra handiagoa izaten da.

Pablo Rodríguez Wilhelmi Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuko zuzendariak azaldu duenez, uda ganean dugula eta aurtengo San Fermin jaietan transfusio-eskaerak gora

egingo duela aurreikusita, areagotu egin da zentroko erreserbak handitzeko beharra. Gainera, ospitaletan ere gero eta lan gehiago dago, eta horrek Nafarroako zentroetan odol gehiago kontsumitzea ekarri du.

"Azken asteetan odolaren beharrak gora egin duela nabaritu dugu, emaleek emandako odolaren sarrerek gaintzeraino. Beraz, behar-beharrezkoa da erreserbak orekatzea", esan du zuzendariak.

Berak azaldu duenez, batez ere hemati-kontzentratu eta plaketa-unitateen beharra izaten da, eta hauek 42 eta 5 eguneko iraungitze-aldiak dituzte, hurrenez hurren. Horregatik, odol-emateen fluxuak etenik gabea eta jarraitua izan behar du eta ahal den neurrian emale-oldeak saihestu behar dira, odola ahalik eta gutxien iraungitzeko.

Odola emateko zitazioa jasotzen ari diren ohiko emaleei, azken bi hilabeteetan odolik eman ez dutenei eta lehenengoz emateko prest daudenei egin zaie deia. Hauek Iruñean eta Tuteran odola ateratzeko dauden puntu desberdinetara edo Nafarroako gainerako herrietan odola ematea errazten duen unitate mugikorrera joan behar dute datozen asteetan.

Etengabeko arreta

"Ez dugu nahi denak batera etortzea, ekainean zehar mailakatuta baizik", argitu du.



Pablo Rodríguez Wilhelmi, Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuko zuzendaria.

Iruñean odol-emaileei arreta hobea izateko eta odola ematean zain egon beharrik ez izateko, Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuak–Irunlarrea 39 kalean- abenduan zabaldu egin zuen arretarako ordutegia: orain etengabeko arreta eskaintzen du 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostegunera eta 08:00etatik 14:30era ostiral guztietan. Gainera, aurretik ordua eskatzeko sistema du erabili nahi duten emaileentzat; horretarako 848 422500 telefonora deitu behar da. Tuteran odola ateratzeko zentroa Eza kaleko 2. zenbakian dago.

Odol-emailearen Munduko Eguna ekainaren 14an ospatuko da Buenos Airesen (Argentina), eta "Pintatu mundua gorri 2011n" izango du leloa, mundu globalizatuan odola emateak duen garrantzia gogorarazteko. Pablo Rodríguez Wilhelmi adierazi duenez, egun horren helburua da, alde batetik, kalitatezkoak eta seguruak diren odol-erreserbak izateko beharraz ohartaraztea eta, bestetik, ordainsaririk gabeko borondatezko emaileei beren altruismoa eskertzea. "Odola ondasun urria da, eta ematen dutenak biztanle oso solidario gutxi batzuk diren arren, bizitza asko salba ditzake" adierazi du.